

ULTZANUETA ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA

Lehendakaria: D. Martín M^a Picabea Aguirre (Ultzama)

Batzordekideak:

D. Martín M^a Picabea Aguirre (Ultzama)

D. Jesús M^a Larretxea Lazkano (Ultzama)

D. Nicasio Doray Bengoechea (Ultzama)

D. Francisco Pérez Arregui (Ultzama)

D. Roberto Elbusto Egozkue (Anue)

D. Alberto Urdániz Elizondo (Odieta)

MANKOMUNITATEKO BATZARRERAKO DEIA

Martin M^a Picabea Aguirrek, Ultzama, Anue eta Odieta "ULTZANUETA" Zerbitzuen Mankomunitateko Lehendakariak, Mankomunitateko BATZARRAREN kide zaren aldetik, OHIKO BILKURARA DEI egiten zaitut. Bilkura, Ultzamako Udaletxeko areto nagusian egingo da **ASTEAZKENEAN, 2022KO ABUZTUAREN 24an, 19:00etan.**

Etortzerik ez baduzu, etortzea eragozten dizun BIDEZKO ARRAZOIA egiaztatu beharko duzu, toki-araubidearen legediak adierazten duen erantzukizunik ez izateko.

Gai-zerrendan agertzen diren gaien dokumentazio osoa, eztabaidarako eta, hala badagokio, bozketarako oinarri izango dena, batzordekideen esku Idazkaritzan egongo da, Deialdiaren egunetik aitzina.

Jakinaren gainean egon zaitezten eta bidezko ondorioak izan ditzan, jakinarazten dizut, Erripan (Odieta), bi mila eta hogeita biko ABUZTUAREN 16ean.



Ultzaueta
Zerbitzuen
Mankomunitatea
Mancomunidad
de Servicios de
Ultzaueta

D. Martín M^a Picabea Aguirre
ULTZANUETA Zerbitzuen Mankomunitateko Lehendakaria

GAI-ZERRENDA

- 1. Aurreko bilkuretako aktak onestea.**
- 2. 2021. urteko ekitaldiko Kontuen Espedientea behin betiko onestea.**
- 3. Mankomunitatearen Estatutuetako 18. artikulua aldatzea, batzarrerako deialdia jakinarazteko epeari dagokionez. Espedientea behin betiko onartzea.**
- 4. 2022 ekitaldiko Aurrekontuei dagokionez, 4/2022 Aurrekontu-aldaketaren hasierako onespena. Ezohiko kreditua. TAP proiektuak idaztea.**
- 5. Ultzanueta Zerbitzu Mankomunitatearen Zehapen Ordenantza hasiera batez onestea.**
- 6. Mankomunitateko EUTEko instalazioko ura eta bere eskumeneko iturburuetako ura erabiltzeari eta hornitzeari buruzko akordioak.**
- 7. Lehendakaritzaren 2021eko eta 2022ko ebazpenen berri ematea.**
- 8. Argibideak.**
- 9. Eskaerak eta Galderak.**